



ikastolak



BAZTAN IKASTOLA
ELIZONDO



Tailerrean parte hartu zuen ikasle taldea, orri honetako artikuluen egilea ere badena: LH 5. mailakoak.

Jostailu, liburu eta jolas ez sexistak

GABONAK BAINO LEHEN, JOSTAILU ETA LIBURU EZ SEXISTEN INGURUKO TAILERRA IZAN GENUEN, UDALAREN ESKUTIK

Testua eta argazkia Baztan Ikastolako LH-5. mailako ikasleak

Zer nolako garrantzia dute gure bizitzan genero rolerak? Eta telebistan maiz ikusten ditugun jostailu eta jolasek gure eguneroko bizitzan? Zer transmititu nahi izaten digute kolore arrosa eta urdinarekin?

Gabonak baino lehen Udaletxeko Berdintasun Zerbitzuko Naroa eta Alaitz gure ikastolan izan ziren jostailu eta liburu ez sexisten inguruko tailer bat emateko.

Ikastolako liburutegian sartu ginen eta borobil batean paratu ginen. Orduan, harizko pilota atera zuten eta bakarrik pilota zuenak hitz egiten ahal zuen. Momentuan gure izena, non bizi ginen eta zer animalia sentitzen ginen errateko erran ziguten. Hori akitzerakoan joko batean aritu ginen.

Jokoa zen, beraiek poltsa batetik ateratzen zituzten jostailuak noizbait erabili bagenituen aitzinera joatea eta bertzelatik gibelerat joan behar genuen.

Ondotik, kartulina zuriak apaindu genituen aldizkarietako jostailuen irudiekin. Baina irudiekin aldaketa batzuk egin genituen. Hau da, mutikoak panpinen ondoan, sukaldetxoan edota makillaje kutxaren ondoan jarri genituen. Eta neskak, berriz, auto, motozerra, eskopetekin jarri genituen. Zergatik hau?

Ikusteko jostailu guztiak denentzako direla eta ez maiz, telebistan eta aldizkarietan agertzen den bezala, jostailu zehatz batzuk neskentzako eta bertze batzuk berriz mutikoentzako direla.

Tailer honekin bertze gauza bat ere

ikasi genuen. Ez dela mutikoen eta nesken artean bereizkuntzarik egin behar. Ez jostailuekin bakarrik, baita liburu, telebistako programa eta arroparekin ere.

Bertzalde, berdintasunaren gaiekin segituz, Ikastolen elkarteak antolatzen duen Juul kanpainan iaz argitaraturiko zenbait libururen zerrendako liburuak eskuratu ditugu udaltxeko maleta ibiltariaren bitartez. Liburu horietako batzuk hautatu, landu eta hausnartu ondotik, laburpenak egin ditugu zuei erakusteko. Gainera, aipaturiko genero integrazioaren inguruko liburu zerrenda honako helbidean aurki dezakezue: http://www.nafarroakoikastolak.net/juul_Noticias.asp?IdNoticia=1132.

HIRU LIBURU EZ SEXISTA

BONOBO BETAURREKODUNAK

●●● Bonobo arrak, emeak eta haurrak oihan batean bizi dira. Egun batean 4 bonobo ar Bel-fastera joaten dira ingelesa ikastera eta handik bueltan, ingelesa irakasten diete gainontzekoei. Ongi egiten duenari betaurreko moreak ematen dizkiote. Emeak ere saiatzen dira ingelesa ikasten eta baita lortu ere; baina betaurrekoak janzterakoan bonobo arrek iseka eta irri egiten diete, emeek buruan zapia eramatea nahi dutelako. Emeak bertze oihan batera joaten dira eta beren bizimoduarekin jarraitzen dute, haziak eta fruituak biltzen. Gainera musika tresna desberdinekin, soinu zoragarriak sortzen dituzte. Bonobo arrek arboletatik jautsi behar izaten dute janari bila, gose baitira. Emeak eta kumeak dauden oihana joaten dira zenbaitzuk beren bizimodu berria ezagutzera. Utzi-ko al diete?



ZORIONEKO HONDAMENDIA

●●● Sagueta familia hiriko auzo on bateko etxe handi bateko zuloan bizi da. Sagueta jaunak egun guztia kanpoan pasatzen du lanean eta etxean, berriz, andrea aritzen da den dena txukuntzen eta bazkaria prestatzen egunero helduentzako eta 8 umeentzako. Aita etortzen denean, dena prest izaten da mahaian afaltzeko eta ondotik, umeak adi-adi aitaren istorioak entzuten aritzen dira gauero, Sagueta andreak, ixil-ixilik, dena garbitu eta txukuntzen duen bitartean. Egun batean, ur uholde bat izaten dute zuloan etxeko hodi batek ura galtzen duelako. Sagueta andreak nola edo hala bere zortzi umetxoak salbatzen ditu, aita kanpoan dagoen bitartean. Bertze zulo batera eramaten ditu eta dituen gauza apurrekin etxe berria antolatzen du. Sagueta jauna etxera itzuli eta bere familiaren bila hasten da larrituta. Azkenean aurkitzen ditu eta afaria prestatzen die ixil-ixilik.



URDABURUTARRAK

●●● Urdaburu familia, aita, ama eta bi semeek osatzen dute. Umeak eta aita mahaian jarrita egoten dira janariaren zain, amak dena sukaldatu, garbitu, txukundu, etab. egiten duen bitartean. Gero lanera eta eskolara joaten dira eta amak dena txukun utzi ondotik lanera joaten da. Egun batean, amak etxetik al egiten du. Hasieran aita eta semea zer egin ezinik aurkitzen dira galduta eta pixkanaka janaria egiten hasten dira. Baina dena zikin dago, arropa garbitu gabe, oheak egin gabe, janaria bukatu egiten zaie... Eta ordura arte zen etxe polit eta garbiak txerri korta dirudi. Aitak eta semeek txerri itxura hartzen dute. Egun batean Urdaburu andrea etxera bueltatzen da eta gizonak eta semeek ez joateko erregutzen diote. Orduan, aita janaria prestatzen eta garbiketa egiten hasten da. Semeek ere laguntzen dute etxean oheak eginez eta sukaldatuz. Berriz ere gizaki itxura hartzen dute.



LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Neskentzako eta mutikoentzako jostailuak desberdinak al dira?
 2. Zenbat ume ditu Sagueta andreak?
 3. Zein animalitan bilakatzen dira Urdaburu familiko aita eta semeak?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Saioa Lizarreta (Erratzuko Eskola).
OINEZ BALEA (2): Garbiñe Oteiza (Ibaialde Ikastola).
ASEGARCE (4 sarrera): Maialen Perez (Baztan Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua era-kuadeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.